

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Esteban Etxabe Arregi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



San Andres auzoko Muxibar baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, auzo bereko Azerikua baserrikoa (gaur galduta). Gerra aurretik, zazpi urterekin hasita, maristen eskolan ikasi zuen. Gerraostean San Viator eskolan ibili zen urte pare batez. Hamalau urterekin Elma lantegian hasi zen lanean, hoditarako osagarriak, janaria txikitzeko makinak eta beste tresneria batzuk egiten. Hamazortzi urterekin egun erdiko eskolak jasotzen hasi zen, doitzaile (ajustadore) ikasketak egiteko, gaurko Biteri plazan zegoen Biteri eskolan (geroago eta beste toki batean Eskola Profesionala izango zena). Elman hartu zuen erretiroa. Kontxi Lasaga arrasatearrarekin ezkondu zen. Bera mutikoa zela, Muxibar baserria erre ondoren, "etxe-erre batzea" nola egin zuten azaltzen du.

Zintak

ARR-096

- **Proiektua:** Arrasate Press
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garai, Jesus Mari - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:**
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Plazaola Otadui, Estepan

ARR-155

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-14
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Gerraostean, San Viatorren

- **Erref:** ARR-155/009
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Gerraostean, Arrasateko San Viator eskolan ibili zen. Etxeko lanetan lagun behar izaten zuen, eta askotan ez zen eskolara joaten.

Transkripzioa

-Ta gero gerra ostien, ba, eskolara fan biher zan, ta frailliek etorri zien hona, frailliek, ta frailliekin ibilli nitzen, baiña ez gauen asko adelantau. Orduen...
-Frailliek Arantzazukuek?
-Ez, ez, San Viator!
-A, San Viator.
-San Viatorren. Holaxen. Ez noie asko dirigitutenk zeaittik e...
-Orduen, gerra ostien, eskolan ibili ziñan hamen, Mondraguen?
-Bai, Mondraguen, Mondraguen, bai.
-San Viatorren?
-Bai, baiña eskolara asko faltetan gauen, zeaittik etxien lana ein biher zan / einbizan/ ta, etxeko lanak eta holan ta, neuri tokau jaten lanak eittie be ta... holaxen...

2. Etxe-erre batzen ibilia

- **Erref:** ARR-155/010
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

1942an erre zen Muxibar baserria, eta Esteban zakuaz etxe-erre batzen ibili zen; baserriz baserri zer ibilbide egin zuen kontatzen du (Aramaio, Garagartza...). Gose denbora izanagatik, Aitzorrotz baserrian anea erdi gari eman ziotela gogoratzen du. Gipuzkoa aldean Bruno izeneko auzoko gizon batek lagundu zion etxe-erre batzen. Don Simon abadearekin izandako gorabehera kontatzen du.

Transkripzioa

-Gero etxe-erre batzen be ibili gintzen, etxe-erre batzen be! Etxia erre zan, Muxibar, cuerenta y dos-ien, ta hango zer danak neuk batu... hartu nittuen. Hasi nitzen hamendik e... lehenengo arrebia ibili zan, nire aurrekue, hamen zera, Txaetatik ta hemen Bedoña ta be hori... ni hasi nitzen zeretik, Azatzatik. Larriño, Azatza, Arientza, ta hortik aurrera, ba, zereraiño, Gatza ta Marin, ta hortik. Gero Aramaixo. Han Untzille ta honeik ta gero Aramaixo

dana.

-Ta ze eitten?

-Etxe-erre batzen, sakuaz!

-A, etxe-errie be batu eitten zan?

-Etxe-errie batzen. E?

-Etxe-errie be batu eitten zan?

-Bai...! Joer. Gaiñera diru asko hartzen zan! Jentiek ondo emuten auen. Ta han Atxorrotxpe...

-Hori zan orduko segurua?

-Bai. Ta Atxorrotxpe, zan ha baserrixa. Atxorrotz badakitzu nun dauen?

-Bai, bai.

-Ha lenengo baserrixa han goixen dauena, han emun ustien anega erdi gari, emun usten, anega erdi gari, orduen. Ze gose denporie zan e, "cuarenta y dos"a. Gose denporie. Ta anega erdi gari! Ta batzuk asko emuten auen! Ta gero han batzen zana ba zertu eitten gauen, zentralizau eitten gauen, ba, puntu batzutan isten gauen. Ha bixkarrien ezin ibili beti! Ta holan ibiltzen gitzen. Ta hori danok.

-Orduan etxe-erriek batzen ibiltten ziñan?

-Bai, neu, neu ibili nitzen. Neu. Zerien hartu ta Aramaixo dana, ta Garagartza ta hau inguru guztiau neuk ibili nauen. Danak. Ta orduen, ba, aiudantie, Bruno [...zelai] zan oso gizon ona. Zerien, hamen, Azatza ta hamen Gipuzkua aldien be harek lagundu usten, Brunok. Ta anekdota bat badauket. Arientzako Don Simon zan abaria. Ta han be atie jo gauen, ta ate gaiñien auen bentania, ta goittik abariorrek Bruno -niri ez usten ezer esan-, Bruno, ta ostia... "Ta Bruno! Lanien edo eskien hau ba?" Ta hak baiño edukaziño gehixau auken ta, "Lanien, jauna, lanien". Handik gora bajuen beste baserri bat, oiñ ez naz /enaz/ akordetan zelan dan, ondio han dau, baiña oin hutsik dau. Ta... esto... abariaz ta han bidien gora goiezela esan usten: "Horrek badakik zer merezi duan han goixen..." Karabarrixa dauko izena han goiko zerak, han Kurtzebarriko [espaldiek]. Han lenau be baserrixe euen, ba, han be aziendie euen Karabarrixan, hola azienda leunteda bat dau oin be. Ta han, ta...esto... "Horrek badakik ze merezi duan? Aurrien daukena atzien ifiñi ta horra Karrabarrixan ahuntze-zain bielketie!". Hareaittik...

3. Lohiz zikinduta mezara

- **Erref:** ARR-155/011
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

10 urtetik 14 urtera bitartean, uda partean, Degurixan bildotsak zaintzen ibiltzen zen Esteban. Domeketan, bildotsekin mendian ibili eta eguerdi alderako Arientzara bueltatu behar izaten zuen, meza entzutera. Egun batean, bildotsak zaintzetik lohiz zikinduta sartu zen elizan, eta Don Simon abadearekin izandako gorabehera kontatzen du.

Transkripzioa

-Harek eiñ eusten beste gauza bat. Beste historixa bat nik [harena]. Ta...

-Horrek, Don Simon horrek?

-Don Simon. Karo, ba, orduen mezie entzutie sagraue zan, mezie entzun ein biher zan /einbizan/. Ta mutikue ni hamar urtetik aurrera ba hamalau arte zerien egon nitzen, e, udan, bilddotsan zain, Degurixen. Ta handik eruen biher izeten nauen Aumeti aldera, han Araba mendixen eruen biher nauen bilddotsok, ta gero eguerdixen etorri mezetan... mezetara etorri ein biher izeten zan. Ta handik banator, handik bueltie eindde, ordubete fan ta ordubete etorri, ordu bi biher zien handik bueltie eitten handik, Degurixetik Arabara fan ta Degurixara barriro e! Ta handik banator, ta etorri nitzen ta lokatzarie ta ke useiñe besteik ez ta... allegau, geratu nitzen eleixa goix... gaiñien. Ordurako banakixen hango barri ta... ta ia jentie, hamaiketan zan mezie, ta ni begira hango jentie sartu zein ba neu azkenengo fateko, ez dakitzu? Ze klaro, lehengo lohixe ta holan zerien ta... geratu nintzen, ta, zerien eskillaran, koruko eskillera barrenien geratu nitzen neu. Ta orduen "Dominus Vobiscum" esateko buelta eitten auen ta, bueltau eitten auen "Dominus Vobiscum" esateko! Ta... baninguen, ta, jarri zan ta begire-begire, ta txarrixoi neuri begira, ba! "Hori atzien dauena etorri dailla hona!" ta ni kalera! Zela fango nintzen, ba, lotsagarri ninguen hola kaka darixola ta aurrekaldera! Kauen diez. Joe, holakotxiek... Joer.

-Zu fan ta harek oindiok [jodiu], ezta?

-Bai jauna.

4. Arientzara eta Araotzera meza entzutera

- **Erref:** ARR-155/012
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Kurtzeberritik Arientzara joaten ziren meza entzutera. Zer bide egiten zuten azaltzen du. Muxibar baserritik gertuago geratzen zitzaaien Arientza, baina Degurixan artzai zegoenea, Araotzera joaten zen meza entzuterara; gero, atzera mendira bueltatu behar izaten zuen eta.</p>

Transkripzioa

-Ta zueik Kurtzebarrittik zeatik etorten ziñen ba honutz, e, han Deguixatik jente gehixena Araotzera faten zan mezetara.

-Bai, baiña gu Kurtzebarrittik etorten gitzen Araozko biria hartu barik! Han Atxulo badakitzu nun dauen? Han Atxulotik hartu ta atajue dau hona zerera, Arientza burure, Intxilistik behera sendie dau hor, sendie, ta han sendatik etorten gitzen horra, Arientzara. Bestela bestekaldetik etorten gitzen.

-Zuetako hobeto euen Arientza Araotz baiño?

-Eske etxera etorri biher bazan, Arientzatik etorri biher izan! Araotzera fan ezkerro nun dauen badakitzu, Muxibar? Karo. Oin, Degurixan ninguela, Araotzera faten nitzen mezetara, ta barriro mendire bueltaitteko, e! Buelta eitteko! Baiñe etxera etorri biher bazan, ba, Araotzera ezin fan, joder, karo. Joder. Alrebes. Holaxen.

-A, karo, orduen zu mezie entzun ta gero etxea etorten ziñan?

-Karo, Arientzan mezie entzun ta etxera!

5. Degurixatik egun bat lehenago bueltatu zenekoa

- **Erref:** ARR-155/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mutikotan, Degurixan bildotsak zaintzen egoten zen Esteban uda partean. Astelehenean janarekin joaten eta igandean etxeratu ohi zen. "Norberak egin behar izaten zuen rantxoa" dio. Iturria txabolatik urruti zegoen. Estebanek ez zuen erloju eta egutegirik, eta, behinola, aste bat luzea egin zitzaion: larunbatean etxeratu beharrean ostiralean joan zen etxera. Hurrengo egunean berriz joan behar izan zuen mendira.

Transkripzioa

-Ta aste baten, han, mutikua, mutikua, aburrirute han bakarrik... tristia mutiko gaztientzako zera. Ta ein jaten, ba, ez gauken erlojurik ta kalendaixorik ta ezebe. Ta, ba, astelehenien faten gitzen, ba, ogi bat, otana bat, ta libre erdi txokolate edo libre bat txokolate ta holako gauzak hartu ta gaiñetikuek, ba, patatie ta [zera]... Ta gero norberak ein biher rantxue! Batien berakatz-saldie, bestien [gure dana], ta holan ein biher dana. Ta itturixe kilometro erdire, e! Ure.

-Hain urrin?

-Urrin. Oin e, oin zerien txabolan daukie handik ekarritte goittik, baiña orduen ez auen holakoik! Han ure ekarri ein biher zan /einbizan/ handik! Ta holaxe... mutikue, mutikue estu! Ta, joder. Ta gero aste baten, ba ia astie luze in jaten ta etorri nitzen zapatue zalakotan barikuen etxera, ta zapatuen barriri buelta! Barriro buelta, domekara arte! La ostia, kauen dio...

-Ta zuk zer, zapatua zalakotan barikuen etorri!

-Barikuen etorri nitzen ta, la ostia, buelta! Kauen dios... joder. Kristonak ikusitte, bai.

6. Elma lantegia eta Biteri eskola

- **Erref:** ARR-155/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

14 urterekin, Elma lantegian hasi zen lanean. Handik lau urtera, 18 urterekin, lanean zebilela egun erdiko eskolak jasotzen hasi zen, doitzaila (ajustadore) ikasketak egiteko, gaurko Biteri plazan zegoen Biteri eskolan (geroago eta beste toki batean Eskola Profesionala izango zena).

Transkripzioa

-Gero, hamalau urteaz, fan nitzen fabrikara, Elmara. Ta han ofizial ein nintzen. Ta gero, hamazortzi urteaz, fan nintzen eskola profesionalera. Zera, "Escuelas de Biteri". Eskola profesionala fundau zanien, orduentxe hasi gitzen gu eskola pro... hor Biterin hasi gitzen eskolan. Ta ia han ein nauen zera, esto, ofizialie. Ta gero maestria.

-Baiña Biteri zan, edo profesionala?

-Lelengo Bite... Biteri, "Las Escuelas de Biteri" hasi zan, fundau zan eskola profesionala. Ta gero fan zan hara, zerera, esto... oin ospittela dauen lekure. Gero fan zan. Lelengo Biterin ta zertu, arrankau auen. Bai.

-A, eskola profesionala ez zan, ez da betik eon oin dauen lekuen?

-Ke ba! Hamen?

-Bai.

-Bai zera! Hor Biterin, hor zerien, hortxe plazan, hori badau bai gasolinerie hori katxarruoi? Hortxe auen Biteri! Hortxe auen Biteri. Ta oin torrie dauen lekuen auen Biterin estatua, ta ha Biterin estatua oin dau han San Juango han zerien dau, han parkien. Biteri hortxe auen.

-Eskola profesionala Biterin hasi zan?

-Biterin hasi zan, ta gero pasau zan zerera, esto, ha baezan e, han estaziño ostien, bamos, oin ospittal ostien, ospittela badau, oin ospittela da, han atzekaldeko pabelloie, orduen han egon zan barriro. Eskola profesionala. Ta gero haundi in zanien, barriro ba gero hona pasau zan.

-Eta zu Biterin ibili ziñanerako Don Jose Maria baebillen hor?

-Bai, Don Jose Mariak fundau auen hori. Don Jose Mariak fundau auen, bai. Don Jose Mariak fundau auen. Orduan hamengo [industrialok hasarre egon zien], joder! Bai.

-Baiña zu Biterira fan ziñan Elman ia lanien ibilitta?

-Bai, bai, ibilitte, hamazortzi urteaz!

-Hamazortziaz?

-Hamazortziaz. Gero, hor akabau nauenien, gero soldau.

-Oseake Biteri Eskolara, gero profesionala izengo zana.

-Bai.

-Eta hori Biteri eskola hori euen hamen San Andresen?

-San Andresen ez, hortxe zerien, gasolinerie dauen lekuen. Gasoliñerie ha trastie zelan da, ha zera, hor plazan, zera, hor.

-A, gasoliñeria! Baiña eske gasoliñeria, bueno, Gasoliñera izena dakona, ezta?

-Bai. Bai, bai.

-A, osea plazan bertan euen.

-Bertan, hortxe auen.

-Horrek, horrek zela dako izena plaza horrek? Lehen ze izen eukan?

-Lehen plaza Biteri, oin ez dakit zelan dan. Ez dakit /eztaitt/.

-Biteri plazan.

-Hortxe auen, bai.

-Eta zuk, oseake Elman hamalau urtekin hasi ta hemezortziaz eskolara fan eta lanari itxi in zotsain edo lana egun erdi?

-Ez, ez, ez, egun erdi lan eta beste erdi eskolan.

7. "Txori he visto..."

- **Erref:** ARR-155/018
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:28:52. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

San Viator ikastetxean erdaraz ikasten zuten. Maristek izen ona zuten, eta inguruko herrietako mutiko ugari elkartzen ziren bertan. Gelako ikaskide bati buruzko pasadizoa kontatzen du: mutiko bat berandu iritsi zen eskolara txoriak harrapatzen ibili zelako, mutikoak erdaraz ondo jakinez eta honako azalpena eman omen zion maisuari; "¡Señor maestro! Txori he visto. Harri he tirau. No he acertau. Tirando, tirando denporie pasau!".

Transkripzioa

-Eta Maristetan euskeraz itten zeuein edo erderaz?

-Erderaz.

-Gerra aurretik be bai e?

-Bai, bai, bai. Erderaz itten zan, erderaz itten zan.

-Eta zer moduzko maisuak zien e, ondo ikasten zeuein edo...?

-E?

-Kastigo asko egoten zan edo...?

-Kastigau? Ez, jente ona zan, zera, mutil onak zien, gero ondo portetan gitzen jeneralmente ez dakitzu? Jente, jente noblie, bamos. Ta anekdota bat kontauko dutzut /kontaukutzut/. Ba bat aillegau zan berandu. Hor e, Mendiola ta horko inguru guztiek, Mendiola, Arientza, ta Bolibar ta horko kontorno guztie ba halako jente... ba ha zentralizetan zan, ba ez auen besterik ta ba haxe. Eskoitzatik be jente asko etorten zan ta. Maristak famosuek zien orduen. Tan holan, ta... egun baten aillegau zan mutiko bat berandu. Udebarrixe. Ta txorixek itten dittu umiek, ta esan utsen "¿Qué ha pasau?" ta "Don maestro, txori he visto, harri he tirau, no he azertau, tirando tirando denporie pasau."

-Eta entendidu euen maistruak, edo?

-Karo, ze ingo utsen /ingutsen/, ba, barre. Ze eingo auen ba. Ba mutikuen zera, bersiñue, badakitzu. Distraidu, ez dakizu? haxe intenziñua txorikumak hartzeko ta ze ta ordun...

8. Gerra denboran, "beti tiropean"

- **Erref:** ARR-155/020
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:31:23. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Estebanek bederatzi urte zituen gerra etorri zenean. Fronteak aurrera egin bitartean, senide batzuen etxera joan zen Esteban. Egunero jaisten zen kalera astoarekin: etxe ostetik irtenez gero ez zuten arriskurik izaten; etxe aurrea, ostera, fronteko tiroen jo mugan zegoen. Iluntzetan, tiro-hotsa izaten omen zen. Azerikua baserrian, Estebanen amaren jaiotetxean, granada bat sartu zen kortan, eta ganadua gobernatzen zebilen Estebanen lehengusua bertan hil zen.

Transkripzioa

-Beratzi urte zeukatzula, gerria etorri.
-Bai gizona, kauen diez.
-Ta esan ostazun, esan dostazu fan ziñala [...]
-Bai. [...] ra bai.
-Ta han egon ziñala denporada baten.
-Bai, karo, gerrie zertu arte, ebakuau arte hemendik. Hemendik abanzau arte.
-Eta gerria zala, kalera etorri be ez ziñan itten?
-Bai, kalera bai, kalera egunero. Astuekin egunero kalera. Zegatik e, etxostetik urten ta gero ia frentie ez auen hartzen, etxostetik urtenda, baiña etxe aurrie-ta beti abatidute. Ta akordetan naz e, noxbaitten ilunkeran edo zertu te "txax!". Han "bakun!" eitten auenien txistuek, "Xast! Xast!" norberan inguruen balak, e! Ni batek be ez nindduen jo. Baiña beti tiropeien. Beti batirute.
-Ta hola lanian edo zeretan ebillen jenterik, heriuta izan zan baten bat?
-Ez dakit, bateron bat izen zan... a bai! Axerin!
-Axerin?
-Gure aman etxien, Arregi, hor Axeriko etxien, sartu zan granada bat kortan, ta hil auen mutil bat ta ganau bi o hil zittuen. Bai, nire primo bat, Tomas.
-A, mutille etxekue, gaiñera?
-Bai, hogeta bi, hogeta bat urteaz edo holaxe.
-Kontxo.
-Ta mutikue, mutikue garbi. Karo, kortan abillen ganaue gobernetan o batzen, o gure dana. Ta sartu zan granadie ta errebentau auen ta hantxe garbi. Ganau pare bat ta bera mutille be fuera! Bai, kortan e. Sartu zan zeroi ta benga!
-Ta etxia zutik geratu zan?
-Bai, etxie ez zan, ez auen, ba ha ingo auen destrozo apur bat, baiña, etxie zertu zan, etxie geratu zan.
-Ta hori zer zan, zure amaren...
-Aman etxien. Aman jaixo-etxien.
-Bai, bai, karo, hori zan amaren ilobia?
-E?
-A, karo, zure primua izateko...
-Nire primue, karo! Ni e...
-Orduen amaren ilobia.
-Eske gintzen, doble primuek gintzen. Nire aitten arrebie fan zan Axerire, ta nire ama zan Axerikue ta etorri zan Muxibarrera, oseake primo doblez. Kruzaute gengozen. Kruzaute auzen.

9. Nazionalak Muxibarren

- **Erref:** ARR-155/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:33:43. **Bukatu:** 00:34:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Muxibar baserrian nazionalak egon ziren. Bertan zeuden kanoiak, eta handik tirokatzen zuten Untzillara (Aramaio), Muru gainera, Udalara eta Elorrio aldera.</p>

Transkripzioa

-Zuk zeuk e, militarrek eta ikusten zittun?
 -Mekauen... etxien gauken militarrok! Han auen kozinie ta han auen dana...
 -Muxibarren? Muxibarren edo...
 -Muxibarren, Muxibarren egon zan baterixiek e... zerak egozen, krisi mediko... esto... kañoiek egon zien han! Ta jode, kriston zera.
 -Ta handik tiroka?
 -Handik tiroka eitten auen zerera, Untzillara ta, horra. Handik tiroka eitten auen.
 -Horreik zer,orreik zien, nazionalak izengo zien, ezta?
 -Nazionalak, nazionalak. Gero bestiek...
 -A oseake gero Muru..
 -Muru ta ha, ha, hara tireketan auen, hara tireketan auen. Hara ta hona zerera Udala ta zerera, Elorrixora eta be bai tireketan auen. Handik, handik tireketan auen. Zelan ez auen hartzen, ba handik zera, handik goittik, bueltan ra! Botaten auen. Bai.
 -Taorreik denpora askuan euki zittuein etxien?
 -Hori... etxoizu, esango dutsut /esangutzut/. Este, abanzadie ba... pare bat, hiru... itxoizu...

10. Nazionalek Arrasate hartu

- **Erref:** ARR-155/023
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Nazionalak Arrasatera nondik sartu ziren azaltzen du. Baziren soldaduak herria hartzerako ihes egindakoak. "Gerra denboran, masakrea egin zuten hemen: 45 pertsona hil zituzten" dio Estebanek. Hildakoen artean, hiru abade hil zituztela kontatzen du.

11. Frontea etxe atarian

- **Erref:** ARR-155/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra denboran, egunero jaisten zen kalera esnea banatzera. Nahiko lan izaten zuen astoarekin etxetik ateratzeko: etxe aurrea, fronteko tiroen jo mugan zegoen, eta etxe atzetik buelta irten behar izaten zuen. Bildotsak gauez ateratzen zituen larrera. Denbora horretan, Estebanen anaia zaharrena Araotzen egon zen ardiekin. Muxibarren senide batzuekin egon zen Esteban.

12. Aitonari buruzko kontuak

- **Erref:** ARR-155/027
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:44:41. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Estebanen aitonak mendian ibiltzen ziren ganadu guztiak ezagutzen zituen (nongoak, norenak... ziren). Aitonak behor bat galduta zebilkien arabar batekin izandako pasadizoa kontatzen du.

13. Arrasatetik Elizondora ardiekin oinez

- **Erref:** ARR-155/028
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:45:51. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Kontrabandoko kontuak. Estebanen aitajaunak eta beste gizon batek ("Martin frantsesak") ardiak eramaten zituzten Arrasatetik Elizondora (Nafarroa). Okelatarako 300 ardirekin joaten ziren oinez. Behin Elizondon, ardiak basoan uzten zituzten, eta ardiek muga zeharkatzen zutenean Martinek jasotzen zituen ardiak.

14. San Andres auzoan galdutako baserriak

- **Erref:** ARR-155/030
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:48:35. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

San Andres auzoan galdutako baserrien izenak: Atxa, Etxaluze, San Andres, Solozer, Orondixo, Estradakoa, Otamendi, Muxibar (bestekoa) eta Isazelaia. Hainbat baserriren kokalekuari buruzko azalpenak ematen ditu.

15. Elma lantegian, "ajustadore"

- **Erref:** ARR-155/032
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:55:43. **Bukatu:** 00:56:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Elma lantegian hoditarako osagarriak, janaria txikitzeko makinak eta beste tresneria batzuk egiten zituzten. Esteban doitzaille ("ajustadore") lanetan aritzen zen.

16. Gatzagara, landarak saltzera

- **Erref:** ARR-155/038
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:00:35. **Bukatu:** 01:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Mutikotan, landarak saltzera joaten zen Gatzagara. Domeketan, goizeko lauretan jaiki eta astoarekin joaten zen Gatzagara: gerora, gurdiaekin joaten hasi zen. Tomateak, piperrak, letxugak... saldu ohi zituen. Tomateak dozenaka eta porruak zientoka saltzen zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com